

MUko Ikus-entzunezko Komunikazioko bost ikaslek irabazi dute Euspot 2014 lehiaketaren sari nagusiak



2014/05/13

Garazi Ayesta, Jon Campo, Nerea Gil, Ibai Iregi eta Eneko Sagardoy Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleek irabazi dute Euspot 2014ko edizioaren sari nagusiak. Izan ere, talde horrek egindako *Pintxo-pote bat, hamaika istorio* izeneko iragarkiak irabazi ditu lehiaketaren bi sari nagusiak. Batetik, *ex aequo*, Yago Mateo eta Heidi Otaduirekin batera, lehiaketaren 1.000 euroko sari nagusiaren erdia. Bestetik, Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasle horiek irabazi dute MUko ikasleek aurkeztutako lanik onenaren saria (500 euro).

Lehiaketan aurkeztutako lana MUko graduaren 2. mailako Publizitate kanpaina proiektuan egin dute eta iragarkirako propio egindako abesti edo *jingle* bat du ardatz.



Euspot lehiaketaren hirugarren edizioko irabazleak, sariak jasotzen.



Publikoaren 500 euroko sariari dagokionez, Olaia Iraola, Leire Bergara, Garazi Lazkano eta Elena Canas Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 2. mailako ikasleek irabazi dute *Pintxo-potea, geurea* izeneko iragarkiarekin. Lan horrek jaso ditu bildutako 1.600 botoetatik, 425 bozka. Spot hori ere gorago aipatutako material eginda dago.



Gaztetxoan atalean, irabazleak izan dira Haizea Arrieta, Oihane Iturbe eta Olatz Iriarte. Hirukoteak aurkeztu zuen *Ta zuk ez dozu ezer igartzen?* iragarkia.



Aurtengo edizioan, guztira, 22 lan jaso dira. Horietatik bederatzia MUko ikasleek aurkeztutakoak eta zazpi kanpoko parte hartzaileek bidalita. Gainera, sei lan bildu dira 18 urte beheragoentzako atalean.

Euspot euskarazko spot lehiaketa antolatuta dago Aretxabaletako Udaleko, Arteman Komunikazioa eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen artean. Aurtengo, hirugarren edizioa izan da eta landu den gaia, pintxo-potea eta euskara.

- Lehiaketaren webgune ofiziala: www.euspot.eu
- Sari banaketaren ekitaldia: [argazki sorta](#).